

FRANTZIAKO SINDIKATUEN ETORKIZUNA

F. O.'ko BATEN IRITZIA

Frantziako iru sindikatu aundienak C. G. T., C. F. T. C. eta F. O. dira. Lenengo komunista menpean dago, bigarrena kristauna da ta irugarrena sozialistena. «L'Express» astekariak Laval jaunari, F. O. gizon bati, galdera batzuek egin dizkie eta Laval jaunak emandako erantzunak interesduak diraitzaitkit. Laval jaunna, F. O.'ko metalurji alkartasunaren bigarren sekretarioa da, berrogei bat urte dauka, eta da oraindik sindikatuetan buru egiten duten oietakoa, baina bere eginkizuna ajola aundikoa da. Oraindik gazte xamarra, gaztedia darabilki erantzuten.

Esaten duenez urte gutxi barru 60 % langille ogei ta amabost baño urte gutxigokoak izango dira. Eskola garaia luzatuko zala uste zuten bañan ez da orrela gertatu, orregatik uste bañan lenago lanean dituzte amasei urte exkerotik gazteak. Gazte oien sikologia da jakin bear dana, gazte oien eskuetan bait dago sindikatuen etorkizuna. Gazte oiek nai dutena izango dira biarki sindikatuak. Zer nai duten? Laval jaunaren iritzian gazte ta lenago koen artean ezberdintasun agiri agirikoa bat dago. Ogei ta amabost urte tik goragokoak euren gaztedia gelditi zegoan eta gudaren bildurez edo gudaz bertaz menperatutako mundu batean pasa zuten. Aldaketa etzuten ezagutzen, eta eurentzako aldaketa, oitu bearreko gauz berri bat da. Bañan gazteak munduataz konturatu diranean aldaketa alde guztietan arkitzen da, eta Frantzia geldiegi dijoala uste dute. Dirua irabazi ta gastatu nai dute, etorkizunaren aienbeste bildurrik ez bai dute. Lenago zenden arrixku asko ez dira gau ezagutzen, gazteentzat irabazitakoa etorri ditezken bearrentzat garanti bat ez da, segituan gastatu ditekenez zerbait baizik. Eta une ontara irixterakoan «L'Express» ko gaderagileak, ia bere ustez, Frantziako langilleak amerikatarren antzekoak izatera irixi diran edo galdetzen dio. Nunbait, lenago esan bezelakoak dira Ipar Ameriketako langilleak eta gañera klase zentzua galdu dutenak, bañan Laval jaunak esaten duenez ez dituzte oraindik euren eskubide gorde naiak galdu. Gañera beste klasiakin kulturaren ezberdintasuna sentitzen dute. Ala ere bear estuenak beatek daukate ta lenagokoak beñi errebulozioleak ez dira. Ala ere oporketak —huelgak— izandu dirala, badirala ta izango diran arrixkua dagona badakite. Gazte oiek pragmatikokoak izateak ez du esan nai lenagokoak bañan biguñagoak izango diranik nagusiekin burrukan.

Korporatismoa langilleak profesioz alkatzea da. Frantziako langilleak orain artea ez dira orrela alkatu, profesio edo lanbide guztiokoak batuaz baizik. Korporatismo onetaz onela dio Laval jaunak: aldaketa aundi dagoala ortan. Enpresa, lantegia, dala gañerko sindikatuen burruka lekua. Problema ez dira ia danen artea, ezta ere lanbide bakoitzez ibiltzen, lantegi bakoitzez baizik. Sindikatuen zatiketa bat dago. Batzuek zatitze ortan korporatismoen bildurra dute. Egia da arrixku bat dagona. Sindikatuen batasuna eusteko bide bakarra luze jokatzen duten irixi bear aundiak erabakitzea da.

Sindikatuen indarrari dagokionez ekonomia politika askoen artean egiten dala aitortzen du (nagusi, tekniko, estadu etab). Sindikatuek ere oiekin alkatutako dirala ekonomiarako erabakiak artzeko. Oraindik sindikatuei galdetu bakarririk egiten zaie, bañan sindikatuek erabakietan parte izateko eguna irixitiko da. Egun ortan bi gauz gerta ditezke: edo ekonomia osotasun bat bezela arturik sindikatuek zati bat bertan izatea edo sindikatuek bitan zatitzea. Ortan dago arrixkua. Sindikatuek bi eginkizun ditu: erantzutea ta

etzabaida alde batetik, ekonomian parte artzea bestetik. Laval jaunaren iritzian, garrantzitsuen erantzutea da ta nagusiekin gauzak eztabaidatzea —diskutitzea—. Izan ere indarra daukan agintariak gizonen eskubideak maizegi aazten ditu. Frantziako sindikatuak billatu nai dutena auxe da, bide berri bat arkitu, amerikatarrena ez dana (au da, askatasun osoko enpresa edo lantegiaren sindikatua) ezta er U. R. S. S.'ekoa ere (Ekonomia Planaren eta lantegien bitarte edo zati bai).

Sindikatuen batasunari dagokionez, orinazioaren barruan bañon errezago Euro-paren barruan egingo dala dio.

Arregi'ar Rikardo'k

ZENBAT BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

HARO-N, apirilak 23.

«ZERUKO ARGIA» ren zuzendari jaunna:

Agiri danez, «Zeruko Argia» eskale asko ditu. Zer ez diote eskatu, orainartekoan daraman bizi-aldi laburrean bertan? Au izan bear duela, bestea azaldu bear duela, tankeraz onela, mamiz au ta jantziz bestea. Denak eske ta eske eta, «Zeruko Argia» k denen eskabideak gogo onez eta biotz zabalez entzun. Zorionak. Ondo egiten dezu, ikasteko entzun egin bear baita. Esateko gertu baña, entzuteko ere bai. Segi ortik. Nik uste dut «Zeruko Argia» k noiz edo noiz mamituko dituela biltzen dituan iritzi oiek. Mamitugarri direnak, jakitua.

Ta, ematen al dit zuzendariak, astekari orri beste zertxobait eskatzeko eskubiderik? Bai? Ba, orra: ortografiaren batasunaren alde saiatu dedilla pixkabat. Merez duela uste dut. Bestela, len ere euskera puxkatuta baldin badugu, esanai bateko itza era askotara idatziaz geiago puxkatuko dugu.

Esaterako: batzuek «konforme», beste batzuek «konporme», ta besteek «konpromete» idatzi dute astekari ortan. Ta ni ez nago orrekin konforme. Itz egiterakoan, norberak oi bezela eta nai bezela erabili dezala, baña idazterakoan zergatik jo ez guztiak era batera?

Baña bereala oztupoa: ta, nola aukera zein erabili? Ba, edatuen dagoena. Emen ezarri dedan adibidean «konforme» dala edatuen, uste dut. Ba, ola bada, ori erabili, ta ez beste biki. Beste biak zokora, erabat zokora, idazterakoan.

Nik ez dut esan nai, esanai bateko itz asko daukagunean, edatuen arte ta beste aaztu bear ditugunik. Ori beste ikuntzek ere ez dute egiten. Ortan astea ergelkeri aundia izango litzake.

Ez gerta ortan ari, ordea. Itz bakarra dugu emen, itz bakarra bi, iru edo lau oguzkeratan, ortografi-eratan. Ortografi era bat zuzen egongo da. Bearbada, bi ere bai, noizki bein. Baña, denek ez. Or mugarik ipintzen ezpadugu, orain ortografiaren alde besterik ez dagoen tokian, emendik urte batzuetara itzen alde ikusiko dugu. Ta orduan, zigor ulertu aldekoaren izkera? Esanai berdinerako, zen-

EZTA...! BAIDA...! atalera ez bazaizkigute bildurri nolanaiki iritziak. Izan bitez auzk goitasunez jantziak, mamitsuak eta probetxugariak, gure arteko txiki-keriak salatzen ibilli gabe.

ENTZUTE AUNDIKO AGIRI BAT PAKEA LURRALDETAN

Juan XXIII'gn. Aita Santuak, Ostegun Santuan, «Pacem in Terris» Enziklika eman du argitara: bere agintzaldiko zortzigarrena du ta 22.000 itzeko da. Ots aundia ater du lurbira osoan, eta bidez gañera. ZERUKO ARGIAK idazk'itxo batean osorik aterako du, baña bitartean ondo deritazio agiri bikain ontako irizpide garaienen muiña asteroko ontan ematea.

Bost atal aundi ditu: 1) Gizakien arteko eratasuna. 2) Gizakien erri-Aginteen arteko artuemanak. 3) Gizarte-elkarteen arteko artuemanak. 4) Batetik, gizakien, etxekoan, elkarteen eta erri bakoitzean eta, bestetik, mundu guziko elkargo baten ar-

toko artuemanak. 5) Artzai-olku edo arrenak.

SARRERA

Pakea lurraldetan, aldi guzietako gizonen nai bizi au, ezin da ez eraike ez tinkatu baldin Jainkoaren legea osorik gorde ezpaiedi, Jakite ta tenika aurrerapenak eratasun arrigarria azaltzen digu bizidunetan eta Izadi-indarretan, eta, aldi be-rean, gizonaren aunditasuna; baño, batez ere, Jainko irazallearen (kreatzallearen) aunditasun baztergabea.

LENENGO ATALA

Eskubideak

Gizaki guziak ba dira nor, eskubide ta eginbaerren jabe. Gañera, gizona Jesukristok bere odolaz erosi, zerutar guziak Jainko-aur ta adiskide ta zeru-onordeko ere egin duala burutan ematen badugu, askoz aintzakotzago joko degu. Gizonak ba du eskubide:

1.—Bizitza, gorputz-osotasuna, aukerako bizimodua izateko, batez ere jan-edanari, jantziari, bizitegiari, atsedeteiari, sendabideari ta lagunarteko laguntzari dagokionez. Beraz, gaxotzen, elbarritzen, alarguntzen, zaartzen, langabetzen eta bizibide-galtzea gertatzen zaioneko segurantzia.

2.—Begirama ta izen ona izateko, egia billatzeko ta norbere burutapenak agertzeko ta zaitzeko, edozein antzebide iraultzeko ta, azkenik, denetako gertarien jakinbide izateko. Jakite-ondasunetan eskuartzeko; beraz, ikasbide izateko ta, norbere merezimenduen arabera, goimaillako ikasketara egiteko ta gizarte-bizieran kargu ta betebearrak beregain artzeko.

3.—Bere kintzientzi zuzenaren arauaz, Jainkoa goretzeko ta bakarrean eta agrian erlijioa aitortzeko.

4.—Norbere bizibidea (estadia) autatzeko, berez famili bat sartzeko edo apaiz edo profesa egiteko. Ezkontza, bakarra ta aut-ezina da ta gizartearen sustrai aurrena ta berezkoa. Gurasoak diru, aurrenik, beren aurrak azitzeko ta aiei erakusteko eskubideak dutenak.

5.—Lan egiteko ta dirubidean beren gisa parduete, eta emakumeak bere izakerari dagokion eraz ta emazte ta ama dan neurrian lan egiteko.

6.—Lanaren ordain-sari doia izateko, berak eta bere etxekoak aukerako bizimodua izan dezaten; orobat norbere ongien, ekararren ere, jabetza izateko.

7.—Bestekin biltzeko, alkar-artzeko ta elkartei egoki deriztan egitura emateko ta auen barruan aukeraz jarduteko.

8.—Erriari bezela, bere errian ibiltzeko ta egoteko, eta bai beste erriartara egiteko ta bertan irauteko ere.

9.—Denen bizieran eskuartzeko ta denen onaren biltaketan sailatzeko, orobat bere eskubideak lege-arauz zaitzeko.

Eginbearrak

1.—Eskubide bakoitzari eginbear bat dagokio. Adibidez: bizitzeko eskubideari bizia gorde-bearra; aukerako bizimodu izatekoari, era onean bizi-bearra; egia billatzekoari, ura benetan ta sakonki billa-bearra.

2.—Norbere eskubideak eskatzean, beren eginbearrak aztu edo bear bezela aintzart arzen ezituztenak, esku batez egin eta besteaz desegin oi dutenen antzeko dira.

3.—Gizakiak alkarrekin bizi ta bata bestean ona bila bear dute; alkarren eskubide ta eginbearrak aitortu ta alkarri begiramaena izan.

4.—Gizonak, bere egiñetan, oarrez ta